

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

222/2020 Foru Agindua ekainaren 9koa. Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzako titularrari eskuordetzea informazio publikoa eskuratzearen arloko eskaerak ebazteko eskumena

Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak 35. artikulua 1. apartatua ezartzen duenez, informazio publikoa eskuratzeko eskaerak ebazteko dituen sailaren titularrak, 32. artikuluan xedatutako prozeduraren arabera.

Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 91. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, administrazio ahalmen edo eskudantziak aldundiaren beste organo batzuei eskuordetu ahalko zaizkie. Ildo beretik, arau horren 94. artikulua xedatzen du aukera dagoela diputatu nagusiaren eta foru diputatuen eskudantziak zuzendariari eskuordetzeko, salbu eta artikulua horretan bertan aipatzen diren salbuespenak badaude; haietatik batek ere ez dio eragiten hemen hizpide dugun gaiari.

Administrazio arloko izapidetze eta kudeaketan, efikazia, arrazionalizazio eta efizientzia irizpideak kontuan hartu behar izateak gomendatzen du Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren titularrari eskuordetzeazuzendaritza horretan izapidetzen diren informazio publikoa eskuratzearen arloko eskaerak ebazteko eskumena.

Horregatik, administrazio efikazia eta azkartasunaren mesedetan, eta Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak ezarritako eskuordetze aukerak kontuan izanda, dagozkidan ahalmenak erabiliz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren titularrari eskuordetzea bere zuzendaritzan izapidetzen diren informazio publikoa eskuratzearen arloko eskaerak ebazteko eskumena, zeinak araututa baitaude Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauan.

Eskuordetze hori mugagabea izango da, lehenago ez bada ezeztatzen edo goragokoak ez badu bereganatzen esanbidezko ebazpen bidez.

Bigarrena. Eskuordetzea tarteko ematen diren informazio publikoa eskuratzeko eskaeren ebazpenetan esanbidez azalduko da eskuordetzea tarteko eman direla, eta organo eskuordetze emaileak eman izan balitu bezala joko da.

Hirugarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 9a

Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR